

txintxarri

GIZARTEA

Duela 50 urte egin zuten ehun eguneko borroka ahaztu ez, eta transmititu dadin

Michelin Lasarte lantegiko ehun eguneko greba egin zutenetik 50 urte bete dira, eta orduan bizitakoak gogora ekarri eta egindako borroka hura aitortzeko zenbait ekintza aurrera eramaten ari dira / 9

KIROLA

Herritarrek Jon Martin eta Lander Astiazaran babestu dituzte Errege Kopa irabazteagatik egin zaien omenaldian / 10



TXINTXARRI

KULTURA

Topaketa ikusgarria egin dute kultur etxeko oholtzan, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko / 5

EUSKARA

Gaztelekua espazio "hezitzaile eta osasuntsua" bilakatuko du Ttakun Kultur Elkarteak / 8



Zaina eta zilarra

Estreinako poema liburua argitaratu du Nahia Intxausti lasarteoriatarrek / 2-3

TXINTXARRI

PROGRESIBOEN HILABETEA

2MÓ 259€

batzuk eguzkitakoak izan daitezke



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia,15.
LASARTE-ORIA



hitzordua eskatu

PLAN VEG
Eskatu hemen zure osasun sistema publikoko betaurrekoak



OPICOS OPTOMETRISTAS

www.multiópticas.com



R.P.S. 93/25



Nahia Intxausti, berak ondutako poema bilduma eskuetan duela. TXINTXARRI

KULTURA

"Bizirik nagoela sentitzeko idatzi dut"

NAHIA INTXAUSTI IDAZLEA

Minbiziaren diagnostikoa jaso ostean biltzen hasi zena poema liburu bihurtu eta argitaratu du herritarrak. Bizipen pertsonalak eta gogoeta kolektiboak uztartu ditu

Iñigo Gonzalez Sarobe

Estreinako lana, *Zainetatik zilarra* poema bilduma argitaratu du berriki Nahia Intxausti (Lasarte-Oria, 1980) idazleak Pamie-la argitaletxearekin. Egindakoa partekatzeke zenbait hitzordutan murgiltzear da eta horien aurretik elkartu da TXINTXARRI aldizkaria berarekin, lanari buruz gehiago jakiteko.

Hasieratik hasteko-edo, noiz eta nola hasi zinen 'Zainetatik zilarra' poema liburuari forma ematen?

Egia esan, une bakar batean ere ez nuen pentsatu liburu bat idaztera helduko nintzenik. Minbizi diagnostikatu zidate-nean burura etortzen zitzaizkidan pentsamenduak, irudiak... biltzen hasi nintzen. Betidanik gustatu izan zait idaztea eta, egoera horren aurrean, are gehiago. Idaztea izaten da nire askatzeko modua, plazeretik egiten dut. Beti esaten dut gau-

za bera: bizirik nagoela sentitzeko idatzi dut.

Kimioterapia tratamendua jaso bitartean ez nuen ezer idatzi; nire indar guztiak prozesu horretara bideratu nituen. Bukatutakoan, baja hilabete batzuk nituen oraindik aurretik eta bidaia bat egin nuen. Orduan hasi nintzen etortzen zizkidan ideiei poesia itxura ematen. Mordoxka bat pilatu nuenean lagun ditudan zenbait idazleri bidali nizkien eta esan zidaten: 'Zergatik ez zara animatzen norabaitera bidaltzera?'. Besteak beste, Ernestina de Champourcin 35. Poesia Sarira bidali nituen eta hara non, euskarazko saria irabazi nuela jakinarazteko deitu zidaten nire urtebetetze egunean bertan!

Orduan erabaki zenuen poema liburu argitaratzea?

Saritu izan nintzela jakin aurretik 30 bat poema nituen eta

sormen lan hori gertukoekin partekatu nahi nuela erabaki nuen, autoedizio batekin-edo. Era berean, pentsatu nuen aditu baten laguntza beharko nuela horri guztiari forma emateko eta Iratxe Retolazari deitu nion. Orduan hasi zen elkarrekin egin dugun bidea.

Nolakoa izan da bide hori?

Oso polita. Mundu hori ezagutzen ez dugunontzat eta hasiberriak garenontzat beharrezkoa da kontu horietan adituak diren pertsonen laguntza. Kontrastatu, irizpide garbi bat ezarri... Ederra izan da horretarako Ira-

"Narratiboagoak dira poema batzuk, lirikoagoak besteak; bien artean topatu dut nire lekua"

txe alboan izatea, pila lasaitu ninduen. Idazle gisa kostatu egin zitzaidan hasieran nire ahots eta estilo propioak aurkitzea; ez nekien oso ongi nor nintzen idazterakoan eta non nongoen eroso. Horretan ere asko lagundu zidan. Narratiboagoak dira poema batzuk, lirikoagoak besteak; bi estilo horien artean topatu dut nire lekua.

Minbiziaren diagnostikoa jaso osteko prozesua, zure gorputzarekin harremanzako modu berria... Gai eta perspektiba oso pertsonalak kontatu dituzu eta baita gaixotasun horri buruzko hausnarketa kolektiboak ere.

Diagnostikoa jaso izanak neure gorputzera eraman ninduen. Sentsazioa dut gizartean, oro har, gorputza alde batera uzten dugula eta buruetan gaudela. Bada, minbizi nuela jakin nuenean nire barruan zegoen hori besarkatzeko ariketa egin nuen, orduan gorputzu nintzen: 'Hau da nire gorputza eta honekin aurrera egin behar dut', esan nuen.

Beraz, egoera oso pertsonal batetik sortu zen hori guztia baina badago geruza kolektibo bat ere: gertuko pertsonekin, osasun sistemarekin, inurrien sarearekin... Oso existentzialki hartzen ditugu askotan horrelako egoerak, 'hil egingo naiz edo ez', baina norberarekin batera igarotzen dute trantzea ingurukoek, bakoitzak bere erara; prozesu partekatuak dira eta hori islatzen ere saiatu naiz liburu honetan, indarra emanda eta gauza onez nahiz ez hain onez hitz eginda.

Nolakoa izan da poema gisa kontatzea zure gorputzarekin eraiki duzun harreman berri horren garapena?

Egia da gaixotasunaren ondorioz sartu nintzela bereziki gai horretan baina denbora daramat gorputzei buruz hausnartzen. Iruditzen zait, askotan, estetikari oso lotuta dagoen kanpora begirako dimentsiotik kasu egiten diogula: osasuntsu egoteari baino, besteen begiradak eta gureak asetzera. Hori egiten ari banaiz, nor ari naiz lehenesten? Ni neu ala besteak?

"Minbizi prozesuan zehar sentitu dut gorputzaren bigilantzia dagoela; kontrola, diziplina"

Hori horrela, eta begira zer esango dudana, neurri batean lasaigarri eta guzti suertatu zitzaidan: bat-batean, nire buruari esan nion 'orain nire momentua da', gorputza lehen leerroan jartzekoa. *Arnasa* poema idazten egin nuen negar gehien, umiltasun ariketa egin eta jaramon gutxi egin nion Nahia txiki horri barkamena eskatu niolako. Sendatze prozesuaren ataleko olerki inportanteeneko bat da hori. Minbizi igaro izanaren bideak erakutsi dit gorputzarekiko ikuskera aldatzen eta seinaleak entzun ahal kasu gehiago egiten; ez dut beti lortzen, baina saiatzen naiz. Gainera, une horietan gorputzaren oso menpe gaude, tratamenduari erantzun egin behar diolako. Uste dut oso gutxitan sentitzen garela era horretara eta pentsatzen dugula guzti-guztiari eutsiko diola, baina ez, ez da horrela.

'Zainetatik zilarra' da poema bildumaren izenburua. Hor ere bada gorputzei buruzko gogoeta.

Horri begira jarri behar duzu: noraino diren gorputzak gureak eta noraino besteak. Hitz joko hori egin dut. Zaina nirea da eta zilarra kanpokoa da, eta, batzuetan, nire barruan gehiago dago kanpokotik. Kimioterapia bera izan daiteke zilarra, eta, modu orokorragoan, nire indibiduoan eragiten duen kanpo begirada hori.

Horri lotuta, prozesuan zehar sentitu dut gorputzaren bigilantzia dagoela oro har; kontrola, diziplina. Adibidez, tratamenduan zehar gertatzen diren aldaketei lotutakoa: bularra kentzearena eta berreraikitzearena, ilea galtzearena... Iruditzen zait minbiziarenean eta beste mila gaietan joera handia dugula besteen gorputzei buruzko iritziak azkarregi emateko eta horiek epaitzeko. Eta emandako etsenplu horiek ez dira medikuekiko kritikak, baizik eta denok egiten dugun hori medikuntzan ere gertatzen dela azaleratzea: iruzkinak, zugaritza erabakitzea, informazio guztia ez ematea eta gaixoeke egoera horretan erabakiak hartu behar izatea, eta abar. Inurri elkarteko kideok askotan ikusi ditugu horrelakoak. Norberari pasatzen zaion unean uste du agian horrela dela, edo kasualitatez gertatu zaiola, baina komunitatean partekatu eta bati baino gehiagori pasa zaiola ohar-tzean... Estrukturala da arazoa.

Komunikazioaren ikuspegitik, arreta deitu dit 'Zuen baimena I' poemak: "Frogatutzat jotako hipotesiak/izurria bezala arin hedatzen sareetan/jarraitzaileen txalo zaratatsuekin hanpatuak". Gailu elektronikoen, sare sozialen eta 'influencer' delakoen garaietan bolo-bolo heda daitezke minbiziarekiko, gorputzekiko... mezu oker eta arriskutsuak. Gaixo dagoen pertsona batek horrelako mezuak jasotzea oso mingarria da. Kulpa besterik ez du sortzen eta ez da batere eraldatzailea. Emakume garenok are gehiago ahultzen gaitu oso barneratua dugulako erruaren sentimendu hori gizaratek ezartzen dizkigun rolak, zaintzarena esate baterako, betetzeari uzten diogulako.

Minbiziari buruz hitz egitean badago joera bat esateko hori pairatzen dutenak ez direla nahikoa zaindu. Horrelakoekin ere oso kritikoak gara Inurrin: gaitotasunagatik hil diren pertsona guztiak hiltzea merezi zutela esaten ari dira, beraz? Zer ari dira egozten pertsona horiei? Horrelako astakeriek eta jokabideek ez dute batere laguntzen; nahikoa gogorra bada prozesu horretan sartu behar izatea, gure gainean are pisu gehiago jarri nahi izateko.

Horrelako jokabideak salatzeak eta beste gauza askotarako osatu duzue inurrien arteko sare zabala. Nolako da zure harremana eragile horretako kideekin?

Minbiziaren prozesua pasa bitartean nire herriko bertako elkarte baten babesa sentitzeagatik izugarritzko zorrea izan dut. Alderdi bortitzenak arintzen dituzte eta oso lagungarria da egoera berean dauden edo egon diren pertsonekin hori guztia partekatzea. Gaur egun beraiekin lankidetzan jarraitzen dut antolatzen ditugun mila gauza eta topaketatan.

Horetako bat etzi egingo duzue Usurbilgo Sutegi aretoan: argitaratu duzun liburuan oinarritutako 'Poemario musikatua' emanaldia. Nolako izango da?

Pamiela argitaletxearekin lanaren aurkezpen ekitaldia egin ostean, gogoia nuen inurriekin

zerbait egiteko baina ez ohiko formatu horretan; liburu kolektiboki partekatu nahi nuen. Baditut lagun musikariak, argazkilariak... eta behin baino gehiagotan hitz egin dugu egitasmoren bat elkarrekin egiteari buruz. Ba orain izan da horretarako unea, proposatu nienean poz-ozirik hasi ziren abestiak sortzen edota irudiak biltzen.

Igandean bost inurri igoko gara oholtzara eta liburu hamabi poema irakurriko ditugu. Esan bezala, musika eta argazkiak uztartuko ditugu emanaldian zehar. Gure asmoa da inurritegia zaintzen duten guztiei eskerrak ematea; bizirik eta elkarrekin gaudela ospatzea.

Horri lotuta, eta jendeak jakin dezan, Lasarte-Orian ere egingo dugu horrelako saio bat ekainaren 18an, Antonio Mercero aretoan, 18:30ean. Ilusio eta gogo asko dut bihotzarekin egindako une polit horiek guztiak bizitzeko.

Usurbilgo saioa igaro eta bederatzigunera Lasarte-Oriako literatur txokoko kideengana etorriko zara poema liburuari buruz hitz egitera. Ilusioz eta gogotsu zaude saio horretarako ere?

Bai! Gainera, talde horretako kide naiz. Zertxobait arraroa izango da niretzat beste aldean egotea, idazle rolean jartzea, baina gogotsu nago horretarako ere. Egia esan gogoia dut taldekideek esateko dutena entzuteko eta partekatzeke.

'Zainetatik zilarra' irakurri dute-nengatik zer jaso duzu orain arte?

Batez ere, gogorra egin zaiela esan didate, baina baita ederra ere. Eskertu didate zuzena eta argia izatea. 'Jo, poesia, ez nago prestatuta horretarako...' esan izan didate; egia da askok badiotela errespetua genero horri, abstraktuegia delakoan-edo. Hunkitu direla, negar egin dutela... Irakurri bitartean sentitu dutela ere kontatu didate eta hori iruditu zait politena.

Hasieratik bukaerara ordenean irakurtzeko liburu da ala estilo libregokoa?

Kronologikoki irakurri dutenen artean bi joera daude: arratsalde bakarrean hasi eta bukatu dutenak eta ekin diotenak baina lasai-lasai joan nahi dutenak, pixkanaka. Egia da zentzua duela horrela irakurtzeak gaixotasunaren prozesuaren berri izateko, baina oso irekita nago: bakoitzak irakur dezala bere modura.

Aurkezpen ekitaldiez ari garela, Zubietako Eskola Txikian izan zara berriki. Helduon iritziekin alderatuta, zer-nolako ekarpenak egin dizkizute haurrek?

Gogorra bezain ederra izan zen saio hori ere. Amets semearekin aukeratutako poemak eraman nituen, ulergarriak izan daitezkeenak-edo, eta horiek irakurri nizekin adin tarte desberdinetako ikasleei; aurretik eta ondoren kontestua eman nien, egoera ulertzeko. Isilik geratzen ziren, begira-begira. Negar malakoak isurtzeraino hunkitu ziren eta baita irakasleak, nire seme-alabak eta ni neu ere. Oso *kañeroa* izan zen, egia esan.

Jarraitzen al duzu burura etortzen zaizunari buruzko oharrak hartzen eta idazten?

Uneotan ez zait horren erraz ateratzen hori, iturria itxi izan balitzait bezala. Idazleak diren lagunekin hitz egin dut horri buruz eta esan didate hasiko naizela berriro. Sentitzen dudana da lan honekin egon nahi dudala hemen eta orain. Diagnostikoa jaso nuenean bezala, poza ematen dit pentsatzeak hemendik denbora batera berriro izan dezakedala aukera plazeretik idazteko.

Txikitatik izan duzu idaztearekiko zaletasuna?

Lasarte-Oriako literatura lehiaketetara aurkezten nintzen beti, orduan hasi nintzen poemak idazten. 12-13 urte izango nituen. Ipuinak idatzi ditut, sariren bat jaso ere bai... eta utzi egin nuen gerora. Orain, liburu irakurri dutenean, 'ez nekien horrela idazten zenuenik' esan didate askok. Eta nik, erantzun: 'Ba nik ere ez, egia esan!'. Sorpresa izan da niretzat ere. Horrelaxe gertatu da eta ez daukat beste azalpenik (barreak).

Amaitu aurretik, besterik nabarmendu nahi duzu?

Naturan askotan topatzen ditudala lasaitasuna eta babesa: mendira edota itsasora joaten, adibidez. Askotan sentitu dut zilarra, esate baterako, eguzki izpiek ura jotzen dutenean. Oso inportantea da niretzako natura.

Hiru hitzordu literario



NAHIA INTXAUSTI / INURRI


'Poemario musikatua' Horren kuttunak dituen Inurri elkarte kideekin eta zenbait lagunekin lankidetzan aurrera eramango du saio hori Nahia Intxaustik etzi, hilak 10, Usurbilgo Sutegi aretoan, 18:00etatik aurrera. Bost inurrik hamabi poema irakurriko dituzte. Ekainaren 18an antzeko saio bat egingo dute Lasarte-Oriako Antonio Mercero aretoan, 18:30ean hasita.



TXINTXARRI

Lasarte-Oriako literatur txokoko hurrengo saioa

Irakurleetako bat izatetik idazle rola hartzera igaroko da Nahia hilaren 19an, literatur txokoko kideen hurrengo saioan. 'Zainetatik zilarra' poema liburu landuko dute kultur etxean, 18:30etik aurrera. Saio horretara edozein herritar bertara daitekeela gogorazi dute antolatzaileek.



LITERATUR TXOKOA/ZABALETA AUZOLAN

'Ipuin kantaketa' ikuskizuna Arestian aipatutako bi hitzorduen artean beste bat aurrera eramango dute Lasarte-Oriako literatur txokoko lagunak, Zabaleta Auzolan eragilearekin elkarlanean: Ipuin kantaketa. Eider Rodriguez idazlea eta Anari Alberdi musikaria gonbidatuko dituzte Basotxo plazako lokalera hilaren 14an. 18:30ean hasiko dira eta ikus-entzulez betetako aretoan jardungo dira, antolatzaileek sarrera guztiak saldu baitituzte.

"Liburu irakurri dutenek, batik bat, gogorra izan dela esan didate, baina baita ederra ere"

"Naturan askotan topatzen ditut lasaitasuna eta babesa; oso inportantea da"

POLITIKA

Gipuzkoa plazatik Okendo plazara etorri da Diputatuen Kontseilua

Udalerriaren erronkak aztertzeko baliatu dute Agustin Valdivia alkateak eta Eider Mendoza diputatu nagusiak hitzordua. Hori amaituta, asteroko bilera egin dute foru diputatuek udaletxean

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua Lasarte-Orian elkartu zen iragan astean, apirilak 28; legegintzaldian gauzatzen ari diren saio ibiltarien barruan aurrera eramandako hitzordua izan zen. Bertaratutakoen artean izan zen Eider Mendoza diputatu nagusia, eta berak adierazi zuen Gipuzkoa plazako diputazioa,

"Gipuzkoako plazetara" ateratzeko nahiarekin egiten ari direla aipatu saioak. Gaineratu zuen horien bitartez, "lurreko udalerrien beharrak, erronkak eta proiektuak bertatik bertara ezagutzeko eta horiek lankidetzan estutzen jarraitzeko nahia" dutela. Hala, nabarmendu zuen "herritarrei erakundearen jardura hurbiltzeko modua" ere badela.



Mendoza ahaldun nagusia, Ttakunenean. TXINTXARRI



Udaletxe atarian ateratako Diputatuen Kontseiluak talde argazkia, Agustin Valdivia alkatearekin. TXINTXARRI

Adierazpenok egin zituen gero: "Helburua lurraldeko eta udalerriko proiektuak eta estrategiak ezagutzeko eta partekatzea da, baita herritarren kezkek eta ekarpenak biltzea ere". Hitz hori jarraiki gaineratu zuen "Gipuzkoa osora irekita" ari direla lanean, ahalik eta udalerri, auzo, enpresa eta eragile gehienekin bilerak eginez: "Topaketa hauek aukera ematen digute udalarekin lankidetzan aurrera egiteko, partekatzen ditugun proiektuetan sakontzeko". Bi horietan hartutako konpromisoaren berria emateko ere baliatu zuen agerraldia: "Ildo berean aurrera egiten jarraitzea, lankidetzan estutuz, politika publikoetan berrikuntza sustatuz eta pertsonen ongizate integrarean eragina duten proiektuak babestuz".

Agustin Valdivia alkateak, berriz, eskerrak eman zizkion Diputatuen Kontseiluari Lasarte-Oriara etorri izanagatik. Honako adierazpenak egin zituen: "Bisita honek erakundearen arteko loturak indartzen ditu eta gure beharrak eta etorkizuneko proiektuak zuzenean helarazteko aukera ematen digu.

Topaketa hau aprobetxatu dugu herrian bultzatzen ari garen erronka eta proiektu nagusiak partekatzeko. Lasarte-Oria oso herri dinamikoa eta potentzial handikoa da, eta Foru Aldundiaren babesa eta inplikazioa izatea funtsezkoa da ezarri ditugun erronka eta helburuetan aurrera egiten jarraitzeko".

Herriko txokoak ezagutzeko tartea

Lasarte-Oriako zenbait leku ezagutu eta horietan aurrera eramaten duten jardunaren berri izateko ere baliatu zuen Mendoza diputatu nagusiak hitzordua. Ondoa izan zituen Gipuzkoako Foru Aldundiko gabinete buru Iker Estensoro eta Bide Azpiegituretako eta Lurreko Estrategiako diputatua eta baita Lasarte-Oriako EAJko kideak ere: Estitxu Alkorta, Goizalde Pildain eta Ainara Elicechea.

Bisitatutako lekuetako bat izan zen Ttakunenea elkarte. Bertara heldu baino lehen, Ttakun Kultur Elkartearen eta Jalgi Kafe Antzokiaren kokalekua erakutsi zion aipatu eragile horretako ordezkari Haritz

Salaberriak. Iñigo de Loiola kaleko espaziora joan ziren gero denak elkarrekin eta bertan jaso zuten Mendozak, Estensorok eta Urkolak Ttakunen berri.

Elkarte horretako kide Mari Karmen Ormazabalek, Andoni Anabitartek eta Mikel Izquierdok egin zieten harrera. Espazioa erakutsi zieten, bertako erabilera azaldu eta elkarteaz orokorrean hitz egiten hasi aurretik, mokadutxoa eskaini zieten. Borobilean eseri, eta tarte hori baliatu zuen Mendozak galderak egin eta xehetasunak jasotzeko.

Ttakun Kultur Elkarte noiz eta zein testuingurutan sortu zen kontatu zioten. Halaber, jakin ahal izan zuen elkarteak zein esparrutan lan egiten duen eta zein zeregin gauzatzen dituen.

Une batean elkartearen erronkak zeintzuk diren galdetu zien Ttakuneko ordezkariari, eta "hizkuntzaren egungo egoera" mahaigaineratu zuten horiek; kezka hori partekatua dela adierazi zion Mendozak berak ere.

Luze eta zabal solastatu ziren.

"Bultzatzen ari garen proiektu nagusiak partekatzeko aprobetxatu dugu"

AGUSTIN VALDIVIA,
ALKATEA

"Herritarren kezkek eta ekarpenak biltzea ere bada ekimen honen helburuetako bat"

EIDER MENDOZA,
DIPUTATU NAGUSIA

Ttakun KE noiz eta zein testuingurutan sortu zen jakin ahal izan zuen Mendozak

KULTURA

Gorputzekin idatzi dute hitzik gabeko hizkuntza, XIII. Dantza Topaketan

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu dute kultur etxeko auditorioko oholztan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Dantzaren Nazioarteko Egunean topaketa aurrera eramán zuten gure herrian arte diziplina hori lantzen eta gozatzen duten eragileek. Urtero lez, Kukuka eskola-koek antolatu zuten jardunaldia eta Erketz EDT, Amaia Gonzalez Caballeroren akademia, Semblante Andaluz eta Sahararren Taldeko dantzariak gonbidatu zituzten. Eguraldi txarra tarteko Okendo plaza utzi eta kultur etxeko auditorioan aritu ziren eta, azken orduko aldaketa hori gaindituta, ikuskizun ederra eman zuten aretoa lepo bete zutem ikus-entzuleen aurrean. Koreografiak erakusten hasi aurretik Crystal Pite koreografo kanadarak prestatutako manifestua irakurri zuten: "Dantzariak gara gu guztiok. Bizitzak mugitzen gaitu; bizitzak dantzatzeko gaitu".

Eguraldi txarrak nahi baino lehenago jarri zituen dantzan antolatzaileak eta emanaldia Okendo plazatik kultur etxeko auditoriora eramatea erabaki zuten. Azken orduko aldaketak eragindako urduritasuna gaindituta, eraikin horretako obrek eragindako aforo murrizketa (goialdeko eserlekuak ezin izan zituzten erabili) ongi kudeatu zuten Kukukako kideek eta kanpoan zain zeuden ehunka herritarretako gehienek zuzenean jarraitu zuten emanaldia.

Topaketan parte hartu zutenek erakutsiko zuten aurrekari gisa egindako sarrera bukatuta, artistek hartu zuten oholztza eta ba-



Kukuka eskolako dantzari talde bat, emanaldi betean. TXINTXARRI



Plaza dantza saioarekin bukatu zuten topaketa. TXINTXARRI

nan-banan erakutsi zituzten emanaldirako prestatutako koreografiak, ikus-entzuleen txalo artean. Amaitzeko, herriko Plaza Dantza taldeak proposatuta, hala nahi izan zuten dantzariak (eta publikoko kideak) taula gainera

igo eta muxikoak dantzatu zituzten. Ordurako, denek ahaztuta zituzten ordubete lehenago presak eta kezak. Izan ere, Pitek azpimarratu lez, "edertasunaren arrasto iheskor horiek hunkitzen gaituzte oraingo unean".

Aurkeztu dute zenbait aldiz geroztik (Gasteizen, besteak beste). Ezaugarri horiek dituzten ikerlan "gutxi" daudela jakinarazi zuen eta 2004. urtean argitaratu zutela azkena. "Hori kontuan izanda, guk kaleratu duguna Euskal Herriaren historiaren bertsio eguneratua dela esan dezakegu". Berreraikitze lan horretan makina bat iturri erabili dituzte hiru egileek: "Euskarazkoek pisua izan dute eta beste hizkuntza batzuetakoak ere erabili ditugu, ez soilik gaztelaniazkoak".

neratuan" argitaratzeko, "subjektu historiko eta nazionala abiapuntu" hartuta.

2020an ekin zioten hiru egileek egitasmoari eta, hasieran hilabete batzuetako lana izango zela aurreikusi bazuten ere, proiektua handitzen joan zen eta iazko maiatzean kaleratu zuten *Iraganaren lekuko. Euskal Herriaren historia* liburua.

KULTURA

Euskal Herriaren bilakaera historikoaren sintesi eguneratua

Txintxarri

Iraganaren lekuko. Euskal Herriaren historia ikerlan dibulgatiboa ondu du Iñaki Lopez de Luzuriaga historialari eta wikilari lasarteoriatarak, beste bi aditurekin batera: Unai Belaustegi eta Xabier Irujo. Euskaratik abiatu dira "Euskal Herriko zazpi lurraldeen historia modu bateratu eta egu-

NEURE KABUZ

Iskin hontatik idazten dizut



GORKA ALVAREZ
KOLABORATZAILEA

Aldatzen ari da. Zerbait aldatzen ari da. Onerako edo txarrerako ote den jakitea da zailena. Denborak esango du.

Euskal musikaren panoramaz ari naiz eta zehatzago, gaur egun, gure herriko musika talde ezagunenek dituzten joera desberdinez.

Badira urte batzuk, joera aldaketa hori nabaria dena. Batetik, doinuen estiloa bera aldatzen ari da mundu mailako musika globalizaturantz bira emanaz. Alternatibo gisa aurkezten den hori merkatal eremuko ukituz saltzen zaigu eta azken batean gure herrian ere modu zabalagoan kontsumitzen da.

Euskal musikariak kanpoko joerei so egitearena ez da berria gurean. Gaur egun, ordea, estatu mailan geroz eta ikuspegi irekiagoa ikus daiteke gure musikaren zabalkunde prozesu horren aurrean. Taldeen arteko harremanak, abesti puntualetan kolaborazioak eta kontzertuak gure mugaz gaindi egiteko aukerak kasu, egunerokotasunean ematen dira.

Hamarkada batzuk atzera begiratu ordea, euskal doinuen portzentaje handi bat bizpahiru estilo zehatzetara mugatzen zela ikusiko dugu. Musika konkretu bat, entzule zehatz bati

zuzendurikoa. Gaur egun ematen ari den globalizazio honek, gurea den horren xarma edota nolabaiteko eskusibitate desagerarazteko prozesua martxan jarri du, baina aldi berean, gure herriko industria musikalaria izugarriko aukera ireki dio merkatu berriak ezagutu eta gure kulturaren berri

munduan barrena zabaltzea ere ekarri du.

Aspalditik datorren atzerriko joeren erreproduzio ohitura horri, gaur egun, bertan sortzen dena, kanpora begira jartzearen aukera gehitzen badiogu, azken urteetan ematen ari diren aldaketei bidea irekitzen diegu. Hasi euskal taldeen grabaketak goi mailako estudioetan egiteko aukeratik, musika doinuen kalitateak berak ere gora egitea, kanpoko goi mailako artistekin hartu eman sendoak jorratzea, inoiz pentsatuko ez genukeen lekuetan euskal taldeek milaka eta milaka pertsona biltzeko aukera izatea...

Galdera ordea honakoa da: bide egokitik al goaz? Non geratzen dira sustraietan lanean jarraitzen duten talde txiki horiek? Globalizazioaren olatu erraldoiak guztiei onura ekarriko al die?

Azkenaldian nire buruan tarteka agertzen diren zalantza horiek, zuentzat. Mikel Urdangarinek zioen bezala: *Iskin hontatik idazten dizut, azkenaldian bezala, egia da bai sasoi honetan hotza egiten duela.*



Lopez de Luzuriaga, 'Iraganaren lekuko. Euskal Herriaren historia' aurkezten. P. BARRIO

Txintxarri

Ormazabal Loradendan aurkeztu dute aurtengo Udaberriko Festa. Herriko merkatariek urte sasoi honetan aurrera eramaten duten ekimen "klasikoa" da; hala adierazi du aipatu elkarteko ordezkari Ana Laureanok, eta gaineratu, urteroko egutegian "huts egin ezin dezakeen jarduera" ere badela, lasarteoriatarrek "gehien gozatzen dutenetako bat" delako.

Kanpaina hilaren 11n hasi eta 24an amaituko dela azaldu du, beraz, denbora tarte horretan hamaika ekitaldi izango dira. Horien gaineko xehetasunak ere eman ditu. Hilaren 11n, herriko haurren marrazki erakusketa jarriko dute establezimendu parte hartzaileetan. Hori horrela, sormen lan bakoitzaren jabeak berea aurkitu beharko du eta hori egindakoan, oparitxo bat jasoko du dendarien eskutik.

Bestalde, hilaren 15ean eta 16an publiko zabalarentzat hainbat jarduera iragarri ditu. 15ean, esaterako, DJa izango da Buenetxea tabernan, 18:30etik 21:00etara. Hurrengo egunean, berriz, 09:00etatik 13:30era, udaberriko gozokiak eskainiko ditu Geselinak. Halaber, Arkupe Tabernak paella



Aterpea merkatarien elkarteko zenbait ordezkari, Ormazabal loradenda atarian. TXINTXARRI

EKONOMIA

Badator "egutegian hutsik egin ezin duen jaia": Udaberri Festa

Askotariko adinetako herritarrentzako jarduerak iragarri dituzte merkatariek

eskainiko du 13:00etatik 15:00etara, eta 14:00etatik 14:30era, aldiz, zunba erakustaldia egingo dute establezimendu horretan. Arratsaldean ere izango da jarduerarik; kontzertuak, 19:00etatik 21:00etara.

Tailerrak eta kontzertuak

Hilaren 21ean, 22an eta 23an, bezeroentzako eskaintza egingo dituzte ondoko negozioek: Mabel Moda, Bideolagunak, Lilura Liburu denda, Imaghine jantzi denda, Amali jolas denda, Urruzola mer-

terria, Olmi mertzeria eta Namie Sushi.

Hilaren 22an, berriz, 17:00etatik 19:00etara, Ormazabal Loradendan *Landatu zure landarea* ekimena aurrera eramango dute, eta Lilura Liburudendan, aldiz, haurrentza-

ko saioa. Egun bat geroago, hilaren 23an, txu-txu treña ibiliko da herriko kaleetan barrena 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Gainera, *Udaberri lore berri* izeneko jarduera izango da 11:00etatik 13:00etara Amali jolas dendan. Egun berean, Andatza tabernan bermuteoa izango da, 12etatik 15:00etara, musika akustikoak girotuta, eta Oria Txiki Tabernan, berriz, parrillada. 13:00etatik 15:00etara izango da azken hori, eta amaitutakoan, musika emanaldiak: 19:00etatik 21:00etara. Buenetxea tabernan ere kontzertuak izango dira, 18:30etik 21:30era. Larunbat horretan (hilak 23), Udaberriko Festari amaiera emateko, barrigorri parrillada herrikoia eta barrikotea egingo dute merkatariek; Okendo plazan izango da, 18:00etatik 20:00etara.

Horretaz guztiaz gain, egunotan, kanpainarekin bat egin duten establezimenduek zozketa txartelak banatuko dizkiete erosketak egiten dituzten bezeroei. Bost erosketa txartel zozkatuko dituzte; 500 euroko bat eta 250 euroko lau. Antolatzaileek ohartarazi dute irabazleek txartel horiek kanpainan parte hartzen duten negozioetan erabili beharko dituztela.

GIZARTEA

Haurrei zuzendutako ekimenek irekiko dute bi egunetako Udaberri Festa

Iñigo de Loiola kalean ongi pasatzeko gogoia eta auzolana izango dira nagusi

Txintxarri

Txokolate janarekin hasi eta DJ Karpin-en musika emanaldia-rekin bukatuko da ILBE Iñigo de Loiola kaleko Bizilagun Elkarteak gaur eta bihar (hilak 8 eta 9) aurrera eramango duen ospakizuna. Inguru horretan bizi direnak ez ezik, gainerako herritar guztiak gonbidatu dituzte antolatu dituzten ekimenean parte hartzera. Antolatzaileek udalaren laguntza ekonomikoa zein logistikoa eskertu dute, udalerrinari bizia ematen dion jarduera antolatzea erraztuko dielako.

Urtetik urtera Iñigo de Loiola kaleko Udaberri Festa herrian errotzea eta edizio berriak antolatzea seinale ona da, batetik, bizilagun elkarteko boluntarioek udalerrinari bizitza ematen jarraitzeko gogoia eta kemena dituztelako, eta, bestetik, parte



ILBE bizilagun elkarteko nahiz udaleko ordezkariak, egitaraua aurkezten. TXINTXARRI

hartzaileek "gero eta harrera hobea" egiten diotelako jarduerari. Ildo horretatik, antolatzaileek bi egunetako ospakizuna prestatu dute: gaurko egitaraua haurrei zuzendutako ekimenekin prestatu dute eta biharkoa izan-

go da egun nagusia; ez dira faltako pintxo-potea, paella jana, osteko bingoa eta DJ Karpin-en musika emanaldia.

Hori guztia aurrera eramateko udalaren "funtsezko laguntza" jaso dute ILBEko boluntarioek.

Ekonomikoa (4.884,06 euro), batetik, eta logistikoa, bestetik: materiala gordetzeko lokala, eguzkitik nahiz euritik babesteko karpak, eta abar. Jaiak departamentuko zinegotzi Txus Alonsok eskerrak eman dizkie alboan zituen kideei ospakizuna antolatzeagatik eta era horretara udalerrira bizirik mantentzeko ekarpena egiteagatik. "Festa gunea ez da Okendo plaza bakarrik, gainerako kale eta auzoetan ere giro ederra sortu daitekeela erakusten diguzue urtero".

Komertzioak eta auzolana

Festa aurrera eramateko "berebizikoak" dira baita ere Iñigo de Loiola inguruko tokiko komertzioak. "Izugarri eskertzen diegu eman diguten laguntza eta programa iragartzeko kartelean txertatu ditugu guztiak, portalez portal itsasten ditugunean herritar guztiak ikus dezaten zer-nolako garrantzia duten".

Iñigo de Loiolako bazterretan sortuko duten giro apartaz gain, parte hartzen dutenen inplikazioa goretsi dute ILBEko lagunek. "Festaz gozatzea bezain garran-

tzitsua da kaleak-eta garbi uztea gero eta horretan asko laguntzen digute bizilagunek". Paella janaren osteko adibidea jarri dute: "Mikrofonoa hartu eta aulkiak zein mahaiak denon artean jaso behar ditugula esatean, berehala hasten dira denak lanean". Gaur arratsaldeko seietan hasiko den Udaberri Festan ere auzolana loratzea espero dute antolatzaileek eta udal ordezkariak, baita eguraldiak festa ez zapuztea ere. Hori da euren esku ez dagoen kontu bakarra.

Umeentzako antolatutako ekimenean artean azpimarratu dituzte txokolate jana, jolasak, buruhandiak eta entzierroa. Beraientzako egun nagusia gaurkoa izango bada ere, bihar ere izango dute dibertitzeko aukerarik bizkotxo lehiaketan edota jokoetan. Horrez gain, Kilkerband txarangako kideekin eta LOZET elkarteko kideek ekarriko dituzten buruhandi eta erraldoiekin kalejiran ibili ahalko dute Iñigo de Loiola kalean eta inguruetan barrena.

Udaberri Festako egitarau osoa aldizkari honetako 15. orrian bildu dugu, Agenda atalean. Joatekoak bazarete, ondo pasa!

Udaberriko

Kontsumitu ezazu
Lasarte-Orian maiatzaren 11tik
24ra, eta parte har ezazu
erosketa-bonoen zozketan

festak

Lasarte - Oria 2024

1.500€

saritan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

DECO 75 TEXTIL HOGAR	ELECTRICIDAD ARREGUI	ORIA-TXIKI TABERNA
ADATS ORRAZTEGIA	FERRETERÍA SUKOA	BAR LASARTE
ÓPTICA IRIGOYEN	BERME AHOLKULARITZA	NAMIE SUSHI
MABEL MODA	MERCERÍA OLMÍ	BAR USOAK
BIZKER RÓTULOS	URRUZOLA MERTZERIA	AITONAK OKINDEGIA
CENTRO DE MASAJE KIMA	NOAOA BIDAIAK	ANDATZA TABERNA
CALZADOS LEDER	ÓPTICA LIZARRI	MONKEY-PARK
DULCE TENTACIÓN	ORBELA EKODENDA	ARAETA SAGARDOTEGIA
IMAGINE JANTZI DENDA	ORMAZABAL LORADENDA	AVENIDA TABERNA
NORTH TEAM NUTRIZIOA	PERFUMERÍA MAIANE	MULTIÓPTICAS LASARTE
ADMINISTRACIONES BARDAJI	SANTANA INFORMÁTICA	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA
HAUNE INTERIORISMO	VENTANAS ALCAR	BERASATEGI KAFEAK
ZUBIETA MOTOR	ZAPATERÍA ITURBE	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA
PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR	OSTEOPATÍA NOELIA CALERO	ADMÓN. DE FINCAS MILLA
TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK	CAFÉ-BAR BUENETXEA	NATURHOUSE
AMA YOGA	LILURA LIBURUDENDA	ORUE BOTIKA
RESTAURANTE HERRIKO ETXEA	ARALAR FISIOTERAPIA	PELUQUERÍA MARBELL
FARMACIA ELI LASA	LA GESELINA KAFETEGIA	LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL
MUEBLES ELBUME	BAR PATRICIO	OIHANA ESTETIKA
ARIMA GASTROTABERNA	AMALI JOLASDENDA	PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA
MERCERÍA ARITZA	ETXEZARRETA HARATEGIA	HALCÓN VIAJES
ARKUPE TABERNA	MARTINEZ MULTIMEDIA INFORMÁTICA	PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS
BIDEO LAGUNAK	OGI BERRI (P. Mufiozabal)	PELUQUERÍA BEA
CLÍNICA DENTAL ALDAZ	PESCADERÍA SAGASTUME	
NOGUÉS MODA	PINTURAS PINTAMIL	



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA

TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



aterpea



Udal ordezkariak eta Gaztelekua kudeatzen hasi ziren Ttakuneko langileak. TXINTXARRI



Udalaren eta Ttakunen arteko euskara hitzarmena sinatzen. LASARTE-ORIAKO UDALA

EUSKARA

Ttakun Kultur Elkarteak kudeatuko du Gaztelekua aurrerantzean

Herriko gazte eta nerabeei espazio "osasuntsu eta hezitzailea" emango diete

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak Gaztelekuaren zerbitzu berria aurkeztu dute. Gazte eta nerabeei zuzendutako espazioa da, aisialdi "osasuntsu, hezitzaile eta parte hartzaileko alternatiba bat eskaintzeko helburuarekin sortua". Hala adierazi dute agerraldian parte hartu duten Agustin Valdivia Calvo alkateak, Hezkuntza eta Gazteria zinegotzi Maite Iglesias Sanchezek. Horiekin batera izan dira euskara elkarteak ordezkarik Jon Pello Artetxe Mendizabal eta Gaztele-

kuko zerbitzua dinamizatuko duten hezitzaileak: Olatz Bardaji Olaizola eta Xuban Ollokiegi Suberbiola.

Alkateak nabarmendu du "oso albiste berezia" dela Lasarte-Oriarentzat, "behingoz" iragarri ahal izan duelako Gaztelekua berriro ere martxan jarri dutela (astelehena izan zen aurreneko eguna, hilak 5). Gaineratu du, aipatu espazio hori gazteentzako eremu bat izanik garrantzitsua dela udalerrira baliabidez hornitzea gazteei euren garapen pertsonal eta sozialean laguntzeko.

Gaztelekuko zerbitzu berria "ingurune seguru, inklusibo eta erakargarri" gisa sortu dela azpimarratu du, gazteek aisialdiaz "modu osasungarrian gozatzeko aukera" izango dutelako. Hezkuntza zinegotzi Iglesiasek, berriz, proiektuak "hezkuntza dimentsio argia" duela azaldu du, eta esan, "errespetua, berdintasuna, parte hartzea, sormena eta erantzukizuna bezalako balioak" sustatzen dituela: "Espazio horretan, gazteek askatasunez hitz egin eta beren kezkek garatu ahal izango dituzte".

KULTURA

Topaketa historikoak errepikatu egin behar baitira

Emakume Elkartekideen II. Topaketa ospatu zuten apirilaren 25ean, herrian barrena. Aurreko urteko antolatzaile Extremadura Etxekoan lekukoa hartuta, Semblante Andaluzek antolatu zuen jardunaldia. Iazkoaren antzera, primeran pasa zuten eta herriko 11 elkarte gastronomikoetako ordezkariak parte hartu zuten. Festarekin amaitu aurretik, Palomo Linares elkarteak jakinarazi zuten hurrengo zita euren zuzenduko dutela. Hirugarrena ere egingo dute, beraz.



TXINTXARRI

GIZARTEA

Herritarren eta eragileen iritziak inkesta bidez biltzeko

Udalarekin lankidetzan ari dira Kalaka kooperatibako kideak, Berdintasun Plana garatzeko. Udal mailan egiten ari diren bilera, lansaio eta bestelakoez gain herritar eta elkarteekin gaia lantzeko asmoa dute eta bide hori irekitzeko galdetegi anonimo bat zabaldu dute. Iritzia era horretara eman nahi duten lasarteoriarrek zein eragileek hilaren 29a baino lehen erantzun beharko dituzte inkestan jaso dituzten 30 galderak. Helburua "bizipen eta iritzi pertsonalak anonimotasunean adierazteko tresna ematea" da. Bi inkesten loturak www.txintxarri.eus atari digitalean dituzte.

GIZARTEA

Elkartasun ekimenetara bideratzeko bilketak

Lasarte-Oriako Elkartasun Sareak jakinarazi du bilera egingo duela hilaren 12an Xirimirin, 16:30etik aurrera, partaide berriei taldearen dinamika azaldu eta hurrengo hilabeteetako lana esplikatzeko. Lau egun geroago janaria bilduko dute Okendo plazan, 11:00etatik aurrera, Donostiako Kale Afari Solidarioak egitasmokoekin kolaboratzeko.

Bestalde, Abarka eragilea ikasteko edota kirola egiteko materiala, toallak eta izarak jasotzen ari da Bizi Kamerun boluntarioria proiekturako. Udal Liburutegian hilaren 16ra arte ariko dira zeregin horretan eta 14an Okendon izango dira, 16:30etik 20:30era bitartean.

Prensa agerraldia baliatu du Ttakun Kultur Elkarteak ordezkarik Jon Pello Artetxe zerbitzuaren gaineko zenbait xehetasun emateko. Iragarri du sare sozialak martxan jarriko dituztela, eta horiek erabiliko dituztela prestatutako jardura, saio eta bestelako deialdi guztien berri emateko. Zerbitzua kudeatzeko "gogo handiz" agertu da; adierazi du Ttakunen gisako herriko elkarte batentzat "oso garrantzitsua" dela horrelako proiektuetan jardutea.

Euskara hitzarmena, berrituta

Lasarte-Oriako euskararen normalizaziora eta sustapenera bideratutako "aliantza estrategikoa" indartu dute bi aldeek. Udalerriko eguneroko bizitzako esparru guztietan euskararen erabilera sustatuko duten zazpi programa babesten ditu.

Erakundeak 220.000 euroko ekarpena egingo dio euskara elkarteari askotariko adin tar- te eta erabilera eremutan eragiten duten zazpi programa laguntzeko. Euskara herritarren eguneroko bizitzan txertatzea helburu duten ekimenen sarea sendotuko dute. Berritasun nagusi gisa, XI. Euskararen Maratoiaren antolakuntza gehitu zaio akordioari. Urrian aurrera eramango da egitasmo hori. Hala jakinarazi dute Agustin Valdivia Calvo alkateak, Euskara zinegotzi eta bigarren alkateorde Estitxu Alkorta Barraganek, eta Ttakun Kultur Elkarteak lehendakari Mari Karmen Ormazabal Ansak. Lasarte-Oriaren euskalduntzean aurrera egiteko ardatz gisa "lankidetzaren publiko sozialeko garrantzia" azpimarratu dute horiek guztiak.

GIZARTEA

Pasarteak akordura ekarri eta memoria bizirik mantentzeko

Michelin Lasarte lantegiko ehun eguneko greba egin zutenetik 50 urte bete dira, eta orduan bizitakoak gogora ekarri eta egindako borroka hura aitortu asmoz hitzaldi-omenaldia egin dute

Txintxarri

Memoria bizirik mantendu eta transmititzeko ariketa xume bezain hunkigarria egin zuten hilaren 5 iluntzean, kultur etxean. 50 urte igaro dira Michelin Lasarte lantegiko ehun eguneko greba egin zutenetik, eta orduko pasarte haiek gogora ekarri eta egindako borroka aitortzeko, zenbait egitasmo aurrera eramaten ari dira sasoi hartan aipatu lantegiko zenbait behargin. Horietako bat, eta aurrera eraman duten azken hitzordua izan zen atzokoa. Manuel

Lekuonan bildu ziren protagonistak, eta horiek entzutera joandako herritarrak. Horiekin batera izan ziren zenbait udal ordezkari ere.

Maidar Galardi Fernandez de Agirre kazetari lasarteoriatarrek eman zion hasiera ekitaldiari; bera arduratu zen hitzaldia gidatzeaz. Ordurako berarekin zeuden oholtzan saioko protagonista nagusiak ere: Felix Perez Carrasco, Manuel Diaz de Rabago, Felix Artetxe, Mikeli Garcia eta Rafa Diez Usabiaga.



Michelingo frontoi irekian ekin zioten ibilbide gidatuari. TXINTXARRI

Duintasunaren ibilbidea

LOGA Lasarte-Oriako Gazte Asanbladakoen egun berezian parte hartu zuten Michelingo ehun eguneko greba oroitarazten ari diren kideek. Lantegitik gertu dagoen frontoi irekitik hasita zenbait geldialdi egin zituzten langileen jangela zegoen tokian, kooperatiba zegoen Juan XXIII plazan, Guardia Zibilaren kuartela izandakoan (udaletxe zaharreko arkupeak) eta Isla plazan.



Greban modu batera edo bestera parte hartu zuten emakumeak omendu zituzten, ekitaldi hasieran. TXINTXARRI

Berrogeita hamar urte atzera egin, eta 1976. urteko maiatzaren 5era begira jarri zituen Galardik aretoan bildutakoak. Oholtzakideei galde-tu ziren orduan ea oroitzen ote zuten aipatu egun horretan non egon ziren? Bada, *Cien días de lucha frente a una multinacional* liburua (garaiko bizipenekin argitaratu zuten) 131 eta 132 orriek dakarten informazioari erreferentzia eginaz, oroitarazi zuen Santa Barbara mendian egon zirela, bertan egin zutela egun horretako greba-asanblada.

Hori horrela, eta garai hartako pasarteak "ez ahazteko eta duela 50 urteko errealitatearen memoria bizirik mantentzeko" asmoz elkartu zirela adierazi zuen gero. Horrekin batera, talde sustatzailearen xedeak zeintzuk diren ere plaza-tu zuten.

Hitzartzeak aurrera egin ahala, zenbait datu eman zituen; azaldu zuen, esaterako, garai hartan 3.500 behargin ari zirela lanean Michelin Lasarten, eta horietatik guttietatik 2.500 bat bildu izan zirela grebako asanbladetan. Azken multzo horretatik bost aritu ziren eszenatokian, baina gogoan izan zituzten horiekin batera orduko borrokan parte hartu zuten gainerakoak ere. Horientzako guztientzako, gainera, hitz batzuk ekarri zituen Agustín Valdivia alkateak. Beste zenbait konturen artean, esan zuen mobilizazioaren protagonista aktiboak izan zirenez gain, herriak ere erakutsi zuela borroka harekiko konpromisoa; akordura ekarri zuen "elkartasun mugimendu handia" sortu zuela, eta horrek "borrokarari irmoki eusteko aukera" eman zuela. Hala, nabarmendu zuen greba hartan langileen emazteek ere garrantzi handia izan zutela. Hain

zuzen ere, azken horiei omenaldi xume bat egiteko ere baliatu zuten hitzordua bost protagonista nagusien hitzartzei ekin aurretik. Horien guztien ordezkari gisa, Kontxi Amonarraiz, Maria Luisa Irizar, eta Arantxa Mendiluze deitu zituzten agertokira, eta txis-

tuaren doinuak lagunduta, *Aurreskua* dantzatu zieten bi dantzari gaztek. Hori amaituta, krabelin gorri bana eman zien alkateak.


Hori eginda, bost protagonistek euren testigantzak eman zituzten, banan-banan. Artikulua, osorik, www.txintxarri.eus atarian.

Bost hizlariak



Felix Perez Carrasco

Grebaren testuinguruaz mintzatu zen. Kontatu zuen, adibidez, lantegi sarreran zegoen baskulara igota ekin ziotela borrokarari, lehen egunean.



Felix Artetxe

Garaiko grebako prentsa bozeramaileetako bat izan zen, eta mobilizazioaren testuinguru hartan euskararen aldeko aktibismoan nola aritu zen kontatu zien entzuleei.



Manuel Diaz de Rabago

Sindikatu bertikaleko kidea zen. Adierazi zuen Michelingo ehun eguneko greba izan zela langile borrokarari dagokionez, "Gipuzkoako greba garrantzitsuena".



Mikeli Garcia

Ehun eguneko grebak izan zuten solidaritate internazionalaz aritu zen. *Un solo patron, una sola lucha leloaz* ere mintzatu zen.

Rafa Diez Usabiaga

Grebalari "gazteenetako bat" izan zen. Greba hura "sekulako eskola soziala, izugarritzko unibertsitate partikularra" izan zela azpimarratu zuen.

FUTBOLA

Harrera beroa, Errege Kopako garaile Jon Martini eta Lander Astiazarani

Ehundaka herritar bildu dira Mercero eta Okendo plazan Realeko jokalariei euren babesa erakusteko. Oroigarriak jaso dituzte udalaren partetik. Errege Kopa herritarrei eskaini eta omenaldia eskertu dute jokalariek

Txintxarri

Apirilaren 30an, arratsaldeko 19:00etan, Mercero plaza jendez betzen joan zen. Ostadarreko harrobiko jokalariek, kuadrillako lagunak, Jon Martin eta Lander Astiazaranen senideak eta ehundaka herritar Realeko jokalaria eta Koparen zain bildu ziren.

19:30ak baino lehen furgoneta beltz bat iritsi zen. Ateak ireki eta Martin eta Astiazaran jokalariek atera ziren. Kopa hartu eta Ostadarreko harrobiko gazteek eta Erketz EDTko dantzariak egindako pasillotik igaro ziren. Zain zituzten udal ordezkariak eta argazkiak egin ostean, aurreskua dantzatu zieten bi omenduei.

Oroigarriak eta eskertzak

Udalbatzar aretora joan ziren jarraian. Agustin Valdivia alkateak egin zien harrera eta besteak beste, herriarentzat erreferente direla azaldu zien. Oroigarri gisa, biak agertzen diren ilustrazioa bat eta Lasarte-Oriako zapia eman zien alkateak: "Hurrengo ospakizunetan, Remiro ez dadila izan, bere herriko zapia daraman bakarra".

Jokalariek ere hartu zuten hitza. Martinek eskerrak eman zizkion udalari horrelako harrera antolatzeagatik: "Lasarte-Oria hazi garen herria da eta gure lehen pausoak eman genituen. Ohore bat da guretzat horrelako harrera bat izatea".

Astiazaranek ere eskerrak eman zizkion udalari eta, batez

ere, senide eta lagunei: "Zuek ere honen parte zaretelako eta zuengatik izango ez balitz hau ez litzateke posible izango. Aupa Lasarte eta aupa Reala".

Balkoira atera baino lehen, familia, kuadrilla, udal batzarkideekin argazkiak egin zituzten, baita hainbat bandera, ilustrazio eta bufanda sinatu ere.


Kopa balkoira ateratzean Okendo plazak eztanda egin zuen eta herritarrei hitz batzuk ere eskaini zizkieten.

Martinek herriaren babesa eskertu zuen: "Zuetako asko Sevillan egon zineten, baina badakit herrian ere giro ederra izan zenutela". Lasarte-Oriako futbol taldeek eta batez ere, Ostadarrek harrobiarekin egiten duen lana ere goraipatu zuen.

Astiazaranek herritarrei eskaini zien kopa: "Ohore bat da kopa herrira ekartzea, hau ere zuena da, zuen babes guztiarengatik". Eta udalbatzar aretoan bezela, "aupa Lasarte eta aupa Reala" esan ostean, herritarren txalo zaparrada eragin zuen.

Kopa Realeko ordezkarien eskutan utzi eta ehundaka haur, gazte eta ez hain gazteekin egoteko tartetxoa ere hartu zuten.

"Lasarte-Oria hazi garen herria da. Ohore bat da guretzat horrelako harrera bat izatea"



Herritar ugari bildu zen Jon Martini eta Lander Astiazarani harrera egitera. Jokalariek ia ezin ziren pasa. TXINTXARRI



Omenaldi txikia egin zitzaion udalbatza aretoan eta, besteak beste, euren familiekin atera zuten argazkia. TXINTXARRI



Udaletxeko balkoira ere atera ziren jokalariek herriari kopa eskaini eta hitz batzuk esatera. TXINTXARRI



"Ez genuen hainbeste jende espero"

Udaletxeko korridoreetan batetik bestera ibili ziren Jon Martin eta Lander Astiazaran jokalariek Kopa hartuta eta horietako tarte batean TXINTXARRI biekin hitz egiteko aukera izan zuten.

Martin eta Astiazaranek bi aldetatik bizi zuten finala, batak zelaian eta besteak harmailan.

Errege Kopako finala irabaztea "ahaztezina" izan zen; "eromena" aipatu zuen Martinek. Astiazaranek, aldiz, "txikitatik jokatu izan dugu elkarrekin eta

berarekin kopa irabaztea ilusio handia izan da", esan zuen.

Neurketaren ostean, ederki ospatu zuten familia eta kuadrillakoekin Sevillan, euren hitzetan.

Eta ospakizunekin jarraikiz, Lasarte-Orian ere omenaldia jasotzea hunkigarria izan dela nabarmendu zuten solasalditxoan.

"Ez genuen espero hainbeste jende egotea", onartu zuen Martinek. "Ikustea herriak



Jokalariek, kopa hartuta. TXINTXARRI

horrelako omenaldia egin digula poz handia sortu dit eta eskerrak eman nahi dizkiet guztiei", adierazi zuen Astiazaranek.

FUTBOLA

Texas Lasartearrako Erregional I. Mailako taldeak ezin izan du Irauli Bosteko garaitu

Herriko futbol taldeek jokalaria berrien izen ematea martxan dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako futbol ordezkariek ez zuten atsedenik izan hilaren lehen asteburuan. Ostadar SKT eta Texas Lasartearra CFko taldeek jardunaldi berriari egin zitoten aurre eta aldeko zein aurkako emaitzak izan zituzten.

Erregional I. Mailako igoera faseko neurketa egon zen, esate baterako, Atsobakar kirol gunean. Lasarte-Oriako talde txuri-urdinak Irauli Bosteko hartu zuen etxean.

Partida gogorra izan zen. Lehen zatian, Texas aurreratu zen markagailuan bitan. Tamalez, atsendaldia iritsi baino lehen murriztu zuten aldea donostiarrek.

Eta bigarren zatia hasi eta gutxira neurketa berdindu zuen aurkariak. Gainera, jokalaria bat baino gutxiagorekin geratu ziren etxeokak eta hori baliatuz, hi-



Texas Lasartearrako jokalaria, lurrera botatzen baloia hartzeko. TXINTXARRI

rugarrena egin zuen Iraulik. Berdinketa eskuratzeko borrokatu arren, etxeok ezin izan zituzten puntuak eskuratu.

Denboraldi berria

Lasarte-Oriako futbol taldeak hurrengo denboraldiari begira ari dira lanean dagoeneko eta bai Texas Lasartearrak, bai

Ostadar SKTk jokalaria berrien izen emate kanpainak hasi dituzte. Bi taldeek euren sare sozialetan jarri dituzte formularioak interesatuak inskribatu daitezzen.

Ostadar SKTko kideek ate irekien garaia iristean (ekainaren 1etik 5era), informazio gehiago bidaliko diete interes-



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAZIOA

Azpeitia, Espainiako txapelkunorde

12 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketako jokatu zen Benidormen (Alacant, Valentzia) hilaren 1etik 3ra. Euskadiko selekzioan atezain lanetan izan zen Izaro Azpeitia herritarra (argazkian, goiko ilaran, eskuinean Izarugarrena) eta Espainiako txapelkunorde titulua eskuratu zuen.

Multzoan fasean, Galizia (1-0), Nafarroa (5-0) eta Melilla (7-0) garaitu eta Madril (2-3) aurka bakarrik galdu zuen taldeak. Final laurdenetan Gaztela eta Leon gainditu zuen nagusiki (8-1) eta final erdian, partida zirrargarria jokatu zuten Valentziako Erkidegoaren aurka. Bina berdindu ostean, penalti txanda luzean erabaki zen finalista; talde bakoitzak hamar jaurtiketa egin zituen. Finalean, Katalunia izan zuten aurrez aurre eta aurkaria 2-6 gailendu zen.

dunei dokumentuan utzitako zenbakira.

Talde txuri-urdinekoek jakitera eman dutenez, taldeak

sortuko dituzte erregistratuta jokalarientzat, eta eurekin informazio guztia partekatuko dute.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

LARUNBATA 9

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

- Urola KE - Ostadar SKT
16.00. Argixao, Zumarragan.

GORENGO MAILA

- Touring KE B - Ostadar SKT
19.15. Fanderia, Erreterian.

ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA

- Oiartzun KE B - Texas Lasart. CF
15.30. Karla Lekuona, Oiartzunen.

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

- Ostadar SKT - Ikasberri KE B
17.30. Atsobakar kirol gunean.

OHOREZKO J. MAILA, IGOERA

- Ostadar SKT - Kotskas CD
15.30. Atsobakar kirol gunean.

JUBENILEN GORENGO MAILA

- Texas Lasart. CF - Zumaiako FT
16.00. Michelin kirol gunean.

IGANDEA 10

JUBENILEN GORENGO MAILA

- Kostkas B - Ostadar SKT
12.15. Matigoxotegi, Donostian.

JUBENILEN I. MAILA, KOPA

- Arr. Chaminate C - Ostadar SKT
10.30. Felix Garin, Donostian.

OHOREZKO K. MAILA, JAITSIERA

- Aizkorri Segura FT - Ostadar SKT
18.15. Alustiza, Seguran.

ARETO-FUTBOLA

OSTIRALA 8

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

- Eguzki Arkupe Rehab. - Bilkoin Basabe
20.50. Maialen Chourraut kirol.

LARUNBATA 9

GAZTEEN MAILA

- Eguzki Lekuona T. - Ibarra
10.35. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA

- Eguzki Escalerilla T. - Mondrate
09.20. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL MAILA, FINAL ERDIA

- Eguzki Andatza T. - Eguzki Patricio T.
12.20. Maialen Chourraut kirol.

IGANDEA 10

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

- Sanpedrotarra - Eguzki ISU Leihoak
11.00. Pasai Donibane kirol.

EUSKAL KOPA, KADETE MAILA

- Kukuyaga Etxebarri - Eguzki Escalerilla T.
10.45. Etxebarri, Bizkaian.

SASKIBALOA

LARUNBATA 9

SENIOR II. MAILA, A-3

- Ast. Mundarro - Luberrri
14.00. Maialen Chourraut kirol.

EUSKAL LIGA, K. MAILA, A-2

- Salesianos - Ostadar SKT
13.00. Barakaldo, Bizkaian.

K. PARTAIDETZA, A-1, 5-6 P.

- Ostadar SKT - Aldapeta Maria B.
16.00. Maialen Chourraut kirol.

K. PARTAIDETZA, A-5

- Ostadar Beltza - Arri BKL L.
18.00. Maialen Chourraut kirol.

IGANDEA 10

SENIOR III. MAILA, A-3

- Zarautz Zast - Ostadar SKT
18.15. Aritzatalde kirol., Zarautzen.

J. ERREND., A-1, FASE FINALA

- Ostadar SKT - Zast Kuraya
11.30. Maialen Chourraut kirol.

K. PARTAIDETZA, A-5

- Bera Bera Manteo - Ostadar Urdina
10.00. Paco Yoldi kirol., Donostian.

BOLEIBOLA

LARUNBATA 9

JUBENIL MAILA, 7-12 P.

- Ostadar SKT - Goierri
18.00. Maialen Chourraut kirol.

K. ERRENDIMENDUA, 1-6 P.

- Ostadar SKT - Oarso Gorri
09.30. Michelin kirol gunean.

K. PARTAIDETZA

- Suge Trebeak 4 - Ostadar SKT
12.30. Azken Portu kirol., Irunen.

PILOTA

OSTIRALA 8

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 1 MAILA

- Oteiza - Intza KE (Artetxe)
18.15. 4. partida. Azkoitian.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. MAILA

- Oiarpe - Intza (Olazabal)
17.30. 5. partida. Oiartzunen.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 3. MAILA

- Intza KE (Lasa) - Hernani
18.15. 3. partida. Loidibarren pil.
- Hondarribia - Intza (Maiz)
19.10. 1. partida. Hondarribian.

LARUNBATA 9

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, N. 2. MAILA

- Legazpi - Intza KE (Diaz de Gereñu)
10.00. 1. partida. Legazpin.

ESKUZ, BANAKA, 4 1/2, K. 2. MAILA

- Hernani - Intza KE (Elola)
11.00. 1. partida. Hernanin.

IGERIKETA

LARUNBATA 9/IGANDEA 10

UDABERRIKO SARIA

- Buruntzaldea IKTko igerilariek Gipuzkoa 'Nada de nada' Udaberriko saria 'Skins' proban egingo dute igerian.
Paco Yoldi kir., Donostian.

JUDO

LARUNBATA 9

ESPAINIAKO TXAPELKETA

- LOKEko unibertsitate mailako judoek Espainiako txapelketa jokatu dute.
Egun osoa. Granada, Andaluzian.

ERRUGBIA

LARUNBATA 9

OHOREZKO B MAILA

- Gipuzkoa Sortzen - Univ. Bilbao
16.00. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA I. MAILA

- Atl. S. Sebastian - Gipuzkoa Sortzen
16.30. Aiete, Donostian.

14 URTEZ AZPIKOA

- Zarautz Beltzak Eibar RT taldeko gazteek Soragazteak Seven txapelketan parte hartuko dute.
12.00. Soraluzen.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

LARUNBATA 9

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

- LOKEko infantil mailako gimnastek Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.
Goiza. Bergaran.

ATLETISMOA

LARUNBATA 9

EUSKADIKO TXAPELKETA

- Ostadar SKTko atletak 18 eta 20 urtez azpiko Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.
Egun osoa. Gasteiz, Araban.

LARUNBATA 9/IGANDEA 10

ESPAINIAKO TXAPELKETA

- Ostadar SKTko Aitor Martin eta Nahia Garcia zein Real Sociedad taldeko Alaia Romerok 16 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa lehiatuko dute Euskadirekin.
Ourense, Galizian.

AUTOMOBILISMOA

LARUNBATA 9

GORLA IGOERA

- Aitor Manso gidariak Euskadiko txapelketako Gorla igoeran parte hartuko du.
15.00. Bergaran.

ATLETISMOA

Lasarte-Oriako atletak maila ezberdinetako lehiaketetan lehen postuetan izan dira

Eskolarteko mailan, kolore ezberdinetako hamaika domina eskuratu dituzte gazteek

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak hitzordu ezberdinak lehiatu dituzte azken asteetan. Gaztetxoek Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako bana-kako lehia amaitu dute. Euskadiko zein Espainiako Kluben arteko txapelketan eta Ligan izan dira lehian herritarrek, hurrenez hurren. Ederki jardun dira eta lehen postuetan izan dira.

Herriko atleta gazteek Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako saioak lehiatu zituzten, Tolosan eta Ordizian, apirilaren 26an eta hilaren 3an. Guztira, hamaika domina jantzi zituzten: bost urrezko eta zilarrezko lau eta brontzezko bi. Ikus koadroa.

Ostadar SKTk ordezkaritza zabaldua izan zuen, hogeitabi infantil eta alebin izan ziren pistan borrokan. Real Sociedad taldeko Alaia Romerok ere parte hartu zuen.

Euskadiko selekzioarekin

Herriko atleten jardunak, garaikurrez gain, beste aitortpen bat izan du: Euskadiko selekzioaren deia. 16 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa jokatu da Ourense (Galizia) hilaren 9an eta 10ean eta Ostadar SKTko Aitor Martin eta Nahia Garcia zein Real Sociedad taldeko Alaia Romerok taldeko zerrendan daude. Martin pisu jaurtiketa proban lehiatuko litzateke, Garcia jauzi hirukoitzean eta Romero bi errelebotan: 4x100 m. eta 4x300 m.

Euskadiko klubik onena

Bestalde, hilaren 2an, 1. mailako Euskadiko klubetako txapelketa lehiatu zen Getxon (Bizkaia) eta bi herritar izan ziren podiumean: Alaia Romerok lehen postua eskuratu zuen Real Sociadekin eta Nerea Eugik bigarrena, Atletico San Sebastianekin.

Eugi 200 metro lasterketan garaile izan zen (25,51) eta Realean dagoen atleta gazteak 100 metroetan bere marka ondu zuen, 12,67. Biak izan ziren euren taldeetako 4x100 m. erreleboko kide.

Espainiako Liga

Horrez gain, Ohorezko Mailako Espainiako klubetako Liga lehen jardunaldia jokatu zen



Ezkerrean, Romero eta Flores eta eskuinean, Iturralde. I. ROMERO/OSTADAR ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

-Eskolarteko txapelketa - 2. jardunaldia

- Alaia Romero (Real Sociedad): Infantil maila - 150 m. - 1º

- Amelie Flores (Ostadar SKT): Infantil maila

- 150 m. - 2º

- Jauzi hirukoitza - 2º

- Nahia Garcia (Ostadar SKT): Infantil maila - Jauzi hirukoitza - 3º

- Pablo Roman (Ostadar SKT): Alebin maila - pisu jaurtiketa - 1º

-Eskolarteko txapelketa -3. jardunaldia

- Alaia Romero (Real Sociedad): Infantil maila

- 80 m. - 1º

- 220 m. hesi - 1º

- Nahia Garcia (Ostadar SKT): Infantil maila - Luzera jauzia - 1º

- Amelie Flores (Ostadar SKT): Infantil maila

- 220 m. hesi - 2º

- Pisu jaurtiketa - 2º

- Auritz Iturralde (Ostadar SKT): Alebin maila - vortex jaurtiketa - 3º

Sukuntza, Zarauzko podiumean

Herriko korrikariak ere mendian zein errepedean izan dira lehian azken asteetan eta lehen postuetan izan dira. Hilaren 3an, Aimar Sukuntza herritarra nor baino nor izan zen Kamel Zianirekin lehian Zarauzko herri lasterketako bigarren postua eskuratzeko. Azkenean oriotarrak eraman zuen zilarrezko postua (29.25) eta Sukuntza hirugarren izan zen (29.28). Bi egun lehenago, Santa Krutz jaietako lasterketan, Mari Carmen Olasok M50 mailako lehen postua eskuratu zuen (47.38).



Sukuntza, podiumean. G. SUKUNZA

apirilaren 25ean eta 26an eta bi herritar izan ziren multzo ezberdinetan lehian.

Leonen (Gaztela eta Leon) Nerea Eugik bigarren postua eskuratu zuen Atletico San Sebastian taldearekin. Herritarrek bakarka 200 m. lasterketan lehiatu zen (25,42) eta 4x100 m.

erreleboan parte hartu zuen; hirugarren izan ziren.

Bartzelonan (Katalunia), aldiz, Valentzia CA taldea nagusitu zen eta Naroa Furundarena herritarrek garaipenean parte hartu zuen. Jauzi hirukoitzean garaile izan zen (12,73 m.) eta xabalina jaurtiketa ere egin zuen.

ARRAUNA

Hirugarren, Espainiako txapelketan



TXINTXARRI

Ur Kirolak taldeko Eneko Mendizabal Urdapilleta herritarra hilaren 2tik 3ra Legutition (Araba) lehiatu zen Arraun Olinpiko eta Paralinpikoko Espainiako txapelketan. Herritarra 1xPR1-PR2 mailan lehiatu zen eta A finalean parte hartu zuen. 2.000 metroko ibilbidea egin zuten lehiakideek eta Mendizabalek podiumeko hirugarren postua eskuratu zuen, 10.53,20 denbora egin.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

Gimnastak, Euskadiko txapelketara



LOKE GIMNASTIKA

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek Amateur mailako Gipuzkoako txapelketako finala eta benjamin kategoriako topaketa izan zituzten apirilaren 25ean eta 26an. Amateur mailan, Kadete B taldeak pilotarekin eta Jubenil A zein B ordezkariek borrekin egin zuten lan. Urduritasunarengatik hutsen bat izan arren, Euskadiko lehiaketarako txartela eskuratu zuten.

AUTOMOBILISMOA

Aitor Manso herritarra Patones igoerako podiumera igo da

Aitor Manso herritarrek Madrigo Mendi txapelketako Patones igoeran parte hartu zuen apirilaren 25ean. Euriak baldintzatutako proban, sailkapen orokorreko bigarren postua eskuratu zuen eta 10. kategoriako garaile izan zen. Euskadiko Mendi igoeren txapelketako hurrengo saioa hilaren 9an jokatu du, Gorrako igoera.



Manso, 10. kategoriako podiumean. A. MANSO

ARETO FUTBOLA

Eguzki AFko taldeak denboraldiko azken txanpan murgilduta daude

Eguzki Escalerilla taberna ekipoak Euskal Kopako neurketa guztiak irabazi ditu

Txintxarri

Eguzki Aretu Futbola klubeko ordezkariek denetarik emaitzak izan zituzten ligako azken jardunaldian.

Erregional I. Mailako taldeak Izarraitz izan zuen aurrez aurre Maialen Chourraut kiroldegian. Etxekoek ongi baliatu zituen gol aukerak eta markagailuan izan zuen isla; 5-0 amaitu zen partida.

Infantilek, aldiz, Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia-ri egin zioten aurre eta sailkapeneko hirugarren eta laugarren geratu direnez, finalerdietara iritsi dira.

Tamalez, finalean talde bakarra izango da. Hilaren 9an, Andatza taberna eta Patricio taberna taldeek indarrak neurtuko dituzte Lauburu Ibarako A edo B taldearen aurka nor lehia-tuko den erabakitzeko.

Gainerako taldeek ere Gipuzkoako Ligan izandako emaitzak, koadroan ikusgai.

Hutsik ez

Eguzki Escalerilla taberna Kadete mailako taldea, Ligako azken txanpaz gain, Euskal kopa jokatzeko ari da. Bikain ari da borrokan eta ez du neurketarik galdu.



Eguzkiko jokalaria baloia eraman. TXINTXARRI

Apirilaren 25ean jokatu zuten lehen jardunaldia. Etxekoak nagusi izan ziren kantuan eta markagailuan. Aurrea hartu zuten 4-0koarekin eta nahiz eta aurkari gerturatu (4-2/6-3), errenta ongi mantentzen jakin zuten. Azken emaitza 7-4koa izan zen.

Hilaren 3an, kadeteek Salburua FS Berdearen aurka 7-5 irabazi zuten.

Eta astean zehar ere partida jokatu zuten taldeak. Hilaren 6an, Antiguokoren aurka lehia-tu ziren hori-beltzak; 2-4 gailendu ziren donostiarrei.

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

• Antiguoko 6 - 4 Eguzki Arkupe Reha.

ERREGIONAL I. MAILA

• Eguzki ISU Leiho. 5 - 0 Izarraitz

GAZTEEN MAILA

• Janrablu 1 - 1 Eguzki Lekuona T.

KADETE MAILA

• Eguzki Escalerillas T. 1 - 1 Laskorain

INFANTIL MAILA

• Lauburu Ibarra A 2 - 1 Eguzki Patricio T.

• Eguzki Andatza T. 4-3 Lauburu Ibarra B

Itzuli bateko liga jokatzeko ari dira eta bi partida faltan, lehen postuan dira Eguzkiko gazteak.

Euskadirekin lehian

Bestalde, 12 urtez azpiko Euskadiko selekzioak Erkidegoen arteko txapelketa jokatu du hilaren 13tik 17ra, Madrilen eta Eguzkiko arduradunek jakitear eman dutenez, taldeko bi jokalaririk izango dira lehian: Peru Azkarate eta Noel Benitez.

IKASTAROKAK

Adin guztietarako udako ikastaroak, kiroldegian

Lasarte-Oriako kirol zerbitzuek udako ikastaroen eskaintza aurkeztu du. Uztailean zehar, adin guztietarako igeriketa saioak, gazteei zuzendutako erraketa kirolak zein *Bai Udan Blai!* kirol jarduera edo helduei zuzendutako padel intentsibo ikastaroak (hastapena eta jarraipena) antolatuko dira kirol instalazioetan. Izen ematea ekainaren 12ra arte egongo da irekia. Lasarte-Oriako udaleko webgunean edo Maialen Chourraut kiroldegia- ren bulego ordutegian egin ahalko da inskripzioa.

Informazio gehiago 943-37 61 82 zenbakian edo *kirolak@lasarte-oria.eus* helbidean jasoko dute interesatuek.

BOLEIBOLA

Euskal Ligako II. mailako taldeak laugarren postuan amaitu du

Kadete Errendimendukoak Gipuzkoako Ligako lehen postua borrokatzen ari dira; Toloboleirekin puntutan berdinduta daude

Txintxarri

Ostadar Boleibola saileko kideak Gipuzkoako txapelketan ari dira lehian bakarrik. Euskal Ligako taldeek dagoeneko amaitu dute denboraldia.

Apirilaren 26an, Euskal Ligako 2. mailako ordezkariek bere kategoriako hirugarren postua borrokatu zuten Universidad de Navarraren aurka.

Iruñeara egin zuen bidaia Ostadar SKTren taldeak eta Universidad de Navarrak ez zien lana erraza jarri.

Jokoz joko lehia estua izan zen arren, iruindarrek eskuratu zuten 2. mailako brontzezko postua 3-leko markagailuarekin.

Txapelketaren bila

Gipuzkoako lehiari dagokionez, Kadete Errendimendu mailako ordezkariek bere kategoriako lehen postuarengatik ari da lehian. Hiru jardunaldi geratzen dira eta buru den Toloboleirekin berdinduta dago puntuetan Ostadarreko taldea. Jokatuako partidak irabazi dituzte bi taldeek



Euskal Ligako II. mailako neurketa. TXINTXARRI

eta azken jardunaldia arte ez dira aurrez aurre egongo, beraz, fase amaiera interesgarria dute lasarte-oriatarrek.

Kadete partaidetzako taldeak, aldiz, multzoko faseko azken jardunaldia jokatu du hilaren 9an eta sailkapena zehaztuko duen azken fasean sartuko da.

Jubencil mailako kideak, aldiz, sailkapeneko 7. eta 12. postu arteko borrokan daude murgilduta.

MENDIA

Andiako mendilerroa eta Buruntza, LOTMEren hurrengo irteerak

Txintxarri

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkar- teak (LOTME) mendiko ibilbideak sustatzeko ekimenekin aurrera jarraitzen du. Apirilean Aiako Harrietan barrena egin zuen, maiatzaren 31n, Uhart- e-Arakil eta Irurtzun arteko bidea egingo dute eta ekainean, ohitura bilakatu den familiei zuzendutako ibilaldia antolatuko du.

Andiako mendilerrotik Beriain eta Txurregui tontor- rakk igarotzen dituen irteera izango da lehena. Hilari amaiera emateko 25 kilometroko ibilbidea egingo dute, zailtasun handikoa; 1.600 metroko desnibel positiboa.

Elkarteko bazkide eta bazkide ez direnentzako jardura da, baina toki kopurua mugatua da, 25 leku bete arte. Inskripzioa LOTMEren webgunean egin

behar da eta bazkide federatuek 5 euro, bazkideek 10 euro eta ez bazkideek 15 euro ordaindu behar dituzte.

Familia ibilbidea

Bestelakoa izango da ekainaren 21eko familia ibilaldia, Lasarte-Oriatik Buruntzako tontorre- ra Benedikatik barrena.

Adin guztietarako pentsatutako bidea haurrekin mendi irteera egiteko proposa dela nabar- mendu dute antolatzaileek.

Izen ematea martxan da, doa- koa da eta kirol elkarteko web- gunearen zein Zirkuituaren bidez egin daiteke. Ekainaren 19ra arte edo 200 tokiak agortu arte, egongo da irekia.

Bi jardueren gaineko xehetasun gehiago mendi elkartearen webgunean aurki ditzakezue.

ZALDI LASTERKETAK

Lehia estuak, udaberriari agur esateko



DABID ARGINDAR

Apirilaren 29an, pista hezea zegoela, udaberriko sasoiko azken saioa lehiatu zen Donostiako Hipodromoan. Azken zuzengunean lehia estuak ere izan ziren; pistako kanpoaldetik joan ziren gehienek irabazi zuten. Udako denboraldirako atzerako kontaketa hasi da eta uztailean, abuztua eta iraileko jardunaldi handien aurrekari modura, ekainaren 11n arratsaldeko saioa izango da.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Maialen
Zorionak Maialen!! Zure urtebetzea ondo pasa izana espero dugu. Hogeita bat! Muxu erraldoiak Leire, aiton-amona eta familiaren partetik. Maite zaitugu bihotzez!



Paul
Zeru zati bat ekarri duzu lurrera eta zure irribarrearekin denbora gelditzeko boterea duzu. Zorionak Paul, aunitz urtez!



Pedro
Zorionak maitia! 11 urte dagoeneko... Handitzen ari zara baina beti izango zara gure umetxo. Zugandik ikasten ari gara egunero, izugarria zarelako. Infinitora arte maite zaitugu! Aita, ama eta arreba.



Iñigo Jon
Bat, bi, hiru, lau, bost-sei-zazpi... Zorionak!!! Realak kopa irabazi izanaren pare ez, are hobeto ospatuko dugu zure urtebetzea, prestatu txapelaren azpiko belarri horiek!!! Asko maite zaituzten familiakoen partez.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 8	KNIESE
LARUNBATA, 9	KNIESE
IGANDEA, 10	KNIESE
ASTELEHENA, 11	GIL
ASTEARTEA, 12	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 13	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 14	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO

22:00etatik 09:00etara

CASTILLA-LARBURU farmazia
 Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41

SUDOKUA

			3	2			5
	4			8			
	3	7				8	2
4				7			5
	7					3	
	2	3	4	8	6		
	9			5	3	4	
8		5	9	6			
		6	2	4		5	

Sudoku-online.org

IRAGARKI SAILKATUAK

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
 publizitatea@ttakun.eus
 www.txintxarri.eus/
 sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

GUTUNAK

Eskutitzak argitaratzeko

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulego etortzea (Geltoki kalea, 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
 Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administraria
 Nerea Garziarena.

Erredakzioa
 Nerea Eizagirre Etxeberria,
 Iñigo Gonzalez Sarobe,
 Maddi Noriega Zaldua eta
 Lierni Apaolaza
 Urdanpilleta.

Publizitatea
 Irati Zatarain.

Laguntzaileak
 Gorka Lasa, Lierni
 Rekondo, Gorka Alvarez,
 Aizpea Amas, Maitane
 Rebe, Jexux Artetxe eta
 Oihane Puertas.

Banatzzaileak
 Nora Navarro, Aimar
 Hernandez, Gari Iraola,
 Axier Iraola, Eneko Sanchez
 eta Udane Guisado.

Informatika zerbitzuak
 IZT Informatika.

Publizitatea
 Tel.: 943-37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
 publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
 txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
 Zeroa Multimedia, S.A.
 Lege Gordailua:
 SS-513/93
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943-37 14 48 | 688 86 83 10 | txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Lasarte-Oriako Bizipoza taldeak Milakultura jaiaren bigarren eguna aurrera eramango du.
- 10:00etatik 12:00etara**, Okendo plazan, Landaberri-Garaikoetxea eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako zein Oriarte institutuko ikasleek muralak sortuko dituzte. Kulturartekotasuna oinarri hartuta, leloak pentsatu, sortu, horiek idatzi eta atonduko dituzte. Horiek guztiak, gero, herriko komertzio eta kaleetan erakusgai jarriko dituztela jakinarazi dute Bizipoza taldeko lagunek. Sormen lan horretan, gainera, Porrotx pailazoaren konpainian ariko dira; kantu eta dantza egingo dute sudurgorriarekin.
- 17:30etik 19:00etara**, Antonio Mercero gunean, Zer dakizu Afrikari buruz? sensibiltzazio saioa emango du Ndank Ndank elkarteak. Ttakun Kultur Elkartearen Gazte Kluba egitasmoko gaztetxoek parte hartuko

dute.

- 18:30etik 19:00etara**, Okendo plazan, Gazte Kluba egitasmoko 4-5-6 mailako gaztetxoek koreografiak dantzatuko dituzte. Zehazki hiru izango direla azaldu dute antolatzaileek: Ndank Ndank elkartearen Elkarri, Bizipozaren Bizipoza auzolan, eta Pirritx, Porrotx eta Marimotosen Eskuetan.
- 19:00etatik 20:00etara**, Okendo plazan, musika jaialdia egingo dute. Bertan izango dira Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileko kideak, baita Nikaraguako eta Senegaleko ordezkariak eta Semblante Andaluz elkarteak ere. Horiek guztiak, euren dantzak eta musikak erakutsiko dizkiete bertaraten direnei. Sahararrek, Zaghareet (irrintzi sahararra) erakustaldia ere egingo dute. Horien guztien artean izango dira ere Txalagoreko txalpartariak, Earra bertso eskolako bertsolariak, Xumela koruko kideak eta LOZETekoak.
- **Ospakizuna** Herri osoko haurrei zuzendutako

egitarauarekin ekingo diote Iñigo de Loiola kaleko Udaberri Festari:

- 18:00etan**, Iñigo de Loiolako plazan, txokolate jana.
- 18:00etatik 20:00etara**, plaza horretan, haurrentzako jolasak.
- 19:00etan**, kalean barrena, buruhandiak.
- 19:30ean**, haurrentzako entzierroa.
- **Zinema** Okendo Zinema Taldeak La tarta del presidente filma emango du. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmooaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Ospakizuna** Iñigo de Loiola kaleko Udaberri Festako bigarren eguna:
 - 10:00etan**, Ankoker taldearekin diana.
 - 10:00etatik 12:00etara**, Iñigo de Loiolako plazan, bizkotxo lehiaketa. Sariak ordubete geroago banatuko dituzte.



TXINTXARRI

- 11:00etatik aurrera**, pintxo-potea eta edari bereziak, azken horiek, Yon Pavon Cocktail Events-en eskutik.
- 11:00etatik 13:00etara**, haurrentzako jolasak.
- 11:30etik 13:00etara**, erraldoiak eta buruhandiak.
- 11:30etik 14:00etara**, Kilkerband txarangaren emanaldia.
- 14:30ean**, paella jan herrikoia.
- 16:30ean**, bingoa.
- 18:00etatik aurrera eta festa amaitu arte**, DJ Karpin-en emanaldia.
- **Literatura** Pello Salaburuk *Panfleto bat atzunduraren kontra* liburua aurkeztuko du. 11:00etan, Antonio Mercero aretoan.
- **Topaketa** Sorgin Jaiak eragileak I. Free Tourra ekimena aurrera eramango du herrian barrena. 11:30ean, Okendo plazatik hasita.
- **Antzerkia** *Gora musika!* antzezlaren emanaldia egingo dute, haurrentzat. Sarrerek 7,20 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.
- **Kontzertua** Peppermint Sextet-ek egingo du emanaldia. Sarrera, doan. Jalgi, 19:30ean.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA

- **Ospakizuna** Urteroko erromeria egingo dute Azkorteke ermitan:
 - 10:30ean**, taberna irekiko dute: salda, edariak eta txorizoa salduko dituzte, 14:30ak arte.
 - 10:45ean**, erromeria, Lierni

- Arozeta eta Olaia Rekondo trikitilariekin.
- 12:15ean**, herri kirolak: aizkorarekin ariko dira Aratz Mugertza eta Julen Gabirondo; harriak jasotzen, berriz, Beñat Telleria.
- 13:15ean**, meza, Alboka Abesbatzako kideekin.
- **Zinema** Haurrei zuzendutako saioan *Maracuda* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduei zuzendutako saioan *El último vikingo* filma emango dute. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA

- **Literatura** Alba Cespedes idazlearen *El cuaderno prohibido* lana jorratuko dute Monica Leivak gidatuko duen solasaldian. Udal Liburutegia, 18:00etan.
- **Ikuskizuna** Udalak eta Danok Kide elkarteak lankidetzan egindako emanaldi digitalen zikloaren barruan *Lucia di Lammermoor* lana emango dute. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute. Kultur etxeko auditorioa, 19:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 14

LASARTE-ORIA

- **Bilketa** Abarka eragileko kideek Bizi Kamerun boluntariora proiekturako baliabideak (ikasteko edota kirola egiteko materiala,

URNIETA Ospakizuna

Santikurutz egunaren bueltan (maiatzak 3) erromeria egin ohi dute urtero eta aurtengoa ez da salbuespena izango. Erromeria, herri kirolen erakustaldia eta meza izango dira ekimen nabarmenenak. Taberna ireki eta jatekoa nahiz edatekoa ere salduko dute, 14:30ak arte.

- toallak eta izarak) jasoko dituzte. Okendo plaza, 16:30etik 20:30era. Udal Liburutegian ere gauza bera egingo dute hilaren 16ra arte, larunbatarekin.
- **Literatura** *Ipuin kantaketa* saioa aurrera eramango dute Eider Rodriguez idazleak eta Anari Alberdi musikariak. Antolatzaileek jakinarazi dute sarrera guztiak saldu dituztela jada. Zabaleta Auzolan-en lokala (Basotxo plaza), 18:30etik aurrera.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA

- **Literatura** 0 eta 3 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako Liburu Baby Kluba egitasmooaren saioa egingo dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea da ekimenaren helburu nagusia. Udal Liburutegia, 11:00etan.
- **Antzerkia** Txalo Produkzioak konpainiak *Trajea* antzezlaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6,10 euro balio dute. Kultur etxeko auditorioa, 19:30ean.

IGANDEA 17

LASARTE-ORIA

- **Zinema** Haurrentzako saioan *Extinción* filma emango dute. Sarrerek 4,10 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.
- **Zinema** Helduentzako saioan *Sinners* filma emango dute. Sarrerek, 6,10 eurotan. Kultur etxea, 19:30ean.



TXINTXARRI

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Haurrei nahiz helduei zuzendutako makina bat ekimen prestatu ditu Iñigo de Loiolako Bizilagun Elkarteak, udalarekin lankidetzan, Udaberri Festa ospatzeko. Umeentzako txokolate janarekin hasiko dira eta DJ Karpin-en musika emanaldiarekin amaituko dute hurrengo egunean.

Txintxarri

Santikurutz egunaren bueltan, Azkortekeko erromeria aurrera eramango dute igande honetan, hilak 10. Hala jakinarazi dute Ttakun Kultur Elkartekeko ordezkari Arkaitz Illarramendi Sarabiak eta Jaiak saileko zinegotzi Txus Alonso Ocariyek asteon; Azkortekeko ermitan egin dute agerraldia. Ekimen horrek herriko jai egutegian duen garrantzia azpimarratu dute biek; kultur ondarearen adierazpen gisa eta belaunaldien arteko topagune gisa duen balioa nabarmendu dute.

Lehenik eta behin, Alonso udal ordezkariak hartu du hitza; Azkortekeko Erromeria bezalako "ohiturak bizirik mantendu eta Lasarte-Oriaren identitatearen parte aktibo" izan daitezen Ttakun bezalako elkarteek "etengabeko lana" balioan jarri du.

Illarramendik, berriz, gogorarazi du erromeriaren helburu nagusia zein den: ohi-tura hori herritar guztiei, batez ere belaunaldi berriei, transmititzen jarraitzea. Horretarako, aurreko edizioetan "arrakasta" izan duen duen programazio sendoari eutsi diote.

10:30ean zabalduko dute taberna. Hori horrela, bertarantzen diren mendizaleek eta



Ttakun Kultur Elkartekeko eta udaleko ordezkariak, Azkortekeko basilizian. TXINTXARRI

KULTURA

Azkortekeko erromeriara joateko gonbita egin diete herritarrei Ttakun KEk eta Udalak

Baselizan dute hitzordua, igande honetan, hilak 10, lasarteoriatarrek

gainerako herritarrek, salda, txorizo egosia eta askotariko edariak dastatzeko aukera izango dutela iragarri dute

antolatzaileek. Hala, ohartarazi dute 14:30era arte izango dela bertan kontsumitzeko aukera.

Ordu laurden geroago, 10:45ean, erromeria hasiko da. Lierni Arozena eta Olaia Rekondo ariko dira ohol-tza

ganean. Eguerdia pasata ekingo diote herri kirolen erakustaldiari. Beñat Telleria ariko da harria jasotzen, eta aizkoran, berriz, bi lagun: Aratz Mugertza eta Julen Gabirondo.

Elizkizunaren txanda izango da ostean, 13:15ean. Antolatzaileek jakinarazi dute Alboka abesbatzak kantatuko duela.

Agerraldia amaitu aurretik, hizlariak herritarrek Azkorteke joan eta musika, herri kirola, gastronomia eta tradizioa "ingurune paregabe batean" uztartzen dituen ekimenaz gozatzera gonbidatzen dituzte.

10:30ean zabalduko dute taberna; salda eta mokadutxoak jateko aukera izango dute

Erromeria, herri kirol erakustaldia eta elizkizuna iragarri dituzte antolatzaileek

Azkortekeko Erromeria

2026ko maiatzak 10

10:30 | Tabernaren irekiera
(salda, txorizo egosia eta edariak)

10:45 | Erromeria trikitalariekin
Lierni Arozena eta Olaia Rekondo

12:15 | Herri kirolak | Harri jasotzailea: Beñat Telleria
Aizkolariak: Aratz Mugertza eta Julen Gabirondo

13:15 | Meza Alboka abesbatzarekin

14:30 | Tabernaren itxiera

Ba al dago plan hoberik igande goizerako?